



**Caritas**  
Gipuzkoa

# SENTSIBILIZAZIO JARDUERAK

---

IKASTETXE ETA

---

UNIBERTSITATEEI ZUZENDUA

---

**2022-2023**



# NOR GARA?



Caritas Eliza Katolikoaren gizarte-ekintza da. Gure zeregi pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsoneri laguntzea da.

Pobreziaren aurka borrokatzen dugu eta lanean dihardugu artatzen ditugun pertsonentzat eta pertsonekin gizarte-aukerak sortzeko. Horrekin batera, bidegabekeriak salatzen ditugu, gizartea sentzibilizatzen dugu, gizarte-politiketan eragina dugu eta gizarte-eredu justuago eta jasangarriago bat bultzatzen dugu.

→ [www.caritasgipuzkoa.org](http://www.caritasgipuzkoa.org)



# ZER ESKAINTZEN DUGU?



Gure ustez, gizarte solidarioago bat eraikitzeko, beharrezkoa da sentsibilizazioa, hau da, pobreziaz eta haren zergatiaz jabetzea eta gure balio gizatiarrenak martxan jartzea.

## "GAZTE EKINTZAILEAK" 2022-23 PROGRAMA

"GAZTE EKINTZAILEAK" programaren bidez, CARITAS GIPUZKOKAK gaztedia gure inguruko gizarte-errealitateez kontzientziatu nahi du, bai eta errealitate horiek aldatzeko parte hartzeak duen garrantziaz ere.

### **Norentzat:**

14 urtetik gorako ikasleak dituzten ikastetxeak.  
(DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoa, Lanbide-Heziketa...)

### **Helburu nagusia:**

Gure inguruko gizarte-errealitateak aldatzeko dugun eginkizunaz hausnartzea, mundu justuago bat eraikitzeko, balio jakin batzuk landuz, hala nola justizia, duintasuna, Giza Eskubideak, bai eta errukia eta samurtasuna ere.

### **Metodologia:**

Tailer dinamikoak, saio batean edo bitan egiteko, adinaren arabera:

>**Hausnarketarako saioa:** ikasleek errealitate gertukoena aztertuko dute, hala nola gizarte-bazterkeria, migrazioak, etxegabeak.... CARITAS GIPUZKOKAK lantzen dituen errealitateak, justizia, duintasuna, Giza Eskubideak... bezalako balioak oinarri hartuta.

>**Parte hartzeko saioa:** ikasleek programa edo egoitzaren bat ezagutu edo ahal izango dute.



# TAILERRAK

---

> DBHko 3. eta 4. mailetarako

---

> Batxilergoko 1. eta 2. mailetarako

---

## 1 Errealitatea? Niri bost axola!

Dinamika jakin batzuk landuko ditugu gizarte-errealitateei "beste" begi batzuekin begiratzeko eta horien zergatiak antzemateko. Hizpidera ekarriko ditugu pobrezia eta bazterkeria, bai eta etxegabezia ere.

## 2 Elikadura duina: Zuk bezala aukeratzeko dut nik

Bi balio landuko ditugu: justizia eta duintasuna, eta azpikoz gora jarriko dugu gizabanakoen elikadura-premia asetzeko planteamendu tradizionala. Caritasen, elikadura eskubidearen alde egiten dugu lan, eta familien eta pertsonen duintasuna eta autonomia ditugu helburu, familiek eta pertsonak beren premien eta gustuen arabera erosteko aukera izan dezaten.

## 3 Gure mundua, gure erantzukizuna

Munduko sistema makroekonomikoa aztertuko dugu, kontzientzia hartzeko. Jarduera horretan, munduko ekonomiak nola funtzionatzen duen eta guk ekonomia horretan zer eginkizun dugun ikus dezakegu.

## 4 Ni ere migratzailea naiz

Kultura-aniztasuna eta immigrazioa landuko ditugu, biak ere historian oso ohikoak diren fenomenoak. Agerian jarriko ditugu munduan dauden interkonexioak, eta globalizazioaren kontzeptua ezagutuko dugu, Giza Eskubideen ikuspegia txertatuz.

## 5 Giza Eskubideak: emakume eta immigrantea

Emakume immigratzaileek jasaten duten zaurgarritasun bikoitzari buruz hausnartuko dugu. Emakumea zarenean eta basamortua zeharkatzen duzunean edo patera batera igotzen zarenean, beste era batera nozitzen dira migrazioak.

# TAILERRAK

---

> LHko 6. mailarako

---

> DBHko 1. eta 2. mailetarako


---

## 1 Giza Eskubideak: pertsona guztien eskubideak?

Dinamika baten bidez, migratzaileen eskubideak sorterrian bidaia hasten dutenetik xede-herrialdera iristen diren arte nola urratzen diren aztertuko dugu. Migratzaileak, haien migrazio-bidaiak, mugak eta bestelako oztopo batzuk, Giza Eskubideak betetzea eragozten dutenak.

## 2 Enpatia lantzea

Gizaki enpatikoak al gara? Solidarioak?  
Hankaz gora jarriko ditugu gure balioak.



# JARDUERA SOLIDARIOAK



Ikasleak beren inguruko gizarte-errealitatearekin harremanetan jartzeko asmoz egiten dugu lan; beraz, proposatzen dizkizugun elkartasun-kanpaina batzuk jarduera gisa edo gizarte-zerbitzuko irakasgaiaren bidez egin daitezke. Edonola ere, bizimodu bat eta ikasteko modu bat dira, bizi garen mundua aldatzeko.

**Hona hemen elkartasun-kanpaina batzuk. Dena den, zuen proposamenak bidaltzera ere animatzen zaituztegu!**

## ELIKADURA-KANPAINA

### ZUK BEZALA AUKERATZEN DUT NIK.

Sentsibilizatzeko eta dirua biltzeko kanpaina, CARITAS GIPUZKOA artatzen ditugun familiei eta pertsoneri modu autonomoan elikadura eskuratzeko aukera ematearen aldekoa da. Hala, familiek zer jan aukeratzeko dute, tokian tokiko dendetara joanez eta elikadura osasungarria eta egokia bermatuz.

Kanpainak, material didaktiko eta dinamika jakin batzuk ditu, kontzientzia hartzeko eta gure elkartasunaren kontzeptua aldatzeko; balio garrantzitsu batzuk oinarri hartuta, hala nola duintasuna, justizia eta eskuzabaltasuna.

## «INOR EZ ETXERIK GABE» KANPAINA

Kanpaina horren helburua etxegabeziari eta haren arrazoiei buruz sentsibilizatzea da. Halaber, ikastetxean, zenbait produktu bildu daitezke, eta CARITAS GIPUZKOAk Etxerik Gabeko Pertsonak artatzeko dituen zentroetara eta programetara bideratuko ditugu.

- TOALLA ETA GALTZERDI BERRIAK
- HIGIENE PERTSONALERAKO PRODUKTUAK: XANPUAK, GELAK...
- GALKORRAK EZ DIREN ELIKAGAIK

## ELKARTASUN-ERRONKA

Hezkuntza komunitate osoarentzako jarduera bat antolatuko dugu (kontzertua, antzerkia, txokolatada, lasterketak, azoka txikia...), dirua biltzeko eta gero Caritasen programa bati babesa emateko.

# CARITAS GAZTEAK



CARITAS GIPUZKOAK, Caritas Gazteak programa jarri dugu martxan.

Gazteentzako topaleku bat izateaz gain, hausnarketarako, sentsibilizaziorako eta sorkuntzarako gunee bat izan nahi du, CARITAS GIPUZKOAK egiten duen lanari laguntzeko, jarduera berriak martxan jarri nahi dituena.

Erakundeetan parte hartzen duten gazteek sortutako eta kudeatutako topalekua da.

**Gazte boluntarioen talde horretan parte hartu eta zuen ideiak, hausnarketak, gogoetak eta ekintzak partekatu nahi badituzue, hau da zuen lekua.**

**GAZTEA  
ZARA?**

The illustration shows a person in a dynamic, almost dancing pose, rendered in black outlines. A large red speech bubble and a smaller pink one are positioned above the text. The text "GAZTEA ZARA?" is written in large, colorful, block letters.

**ZUK ERE EKARPEN HANDIA  
EGIN DEZAKEZU...**

**BALOREAK,  
INDARRA,  
AMETS EGITEKO  
ETA SORTZEKO  
GAITASUNA....**

**ETA NIK, ZER  
EGIN DEZAKEZUT?**

Kontaktatu:

[gazteak@caritasgi.org](mailto:gazteak@caritasgi.org)

WhatsApp edo hots egin: 605 72 85 95

**EGIN NAHI AL  
DUZU JARDUERA  
HORIETAKOREN  
BAT ZURE  
IKASGELAN?  
BESTE  
JARDUERAREN  
BAT PROPOSATU  
NAHI AL DIGUZU?**

- >** [gazteak@caritasgi.org](mailto:gazteak@caritasgi.org)
  - >** 605 72 85 95
  - >** [www.caritasgipuzkoa.org](http://www.caritasgipuzkoa.org)
- 